

Oinarriak eta parte hartzeko Baldintzak

ARGAZKILARITZA RALLY DIGITALA 4X4X3 BARRIKA 2015

OINARRIAK

01. **4x4x3 Barrika 2015 Rallya 2015eko Ekainaren 14ean gauzatuko da**, domeka. Partehartzaileen behin betiko izen-ematea goizeko 9:00etatik 9:45etara gauzatuko da Barrikako frontoian, eta txapelketari beraz, goizeko 10:00etan hasiera emango zaio.

02. 18 urtetik gorako eta argazkilaritza zalea den edozein persona parte hartu dezake Rallyan. Txapelketan **gehienez 50 partehartzaile** parte hartu ahal izango dute, argazkilaritza profesionalak honetatik kanpo geldituko direlarik.

03. Partehartzaileek **aurretiko izen-ematea** burutu behar izango dute **Ekainaren 11a, osteguna, baino lehen**, ondoren eskaintzen diren oinarrien arabera.

04. Rallyan partehartzea **doanekoa** da. Behin-betiko izen-ematean zehar (Ekainaren 14aren 9:00etatik 9:45etara) partehartzaile bakoitzak **Oinarri eta Baldintza** hauen kopia bat jasoko du, rallya bukatzean sinatuta entregatu beharko duena memoria txartelarekin batera.

05. Ekainaren 14aren, domeka, 9:45ak baino lehen Barrikako frontoian behin-betiko izen-ematea burutu ez duten aurreinskribatuek, partehartzeko zuzeneko eskubidea galduko dute eta izena-emateke dauden horien behin-behineko zerrendan kokatuko dira ordenean, non parte hartu nahi duten eta aurretiko izen-ematea burutu ez duten argazkilariak egon daitezkeen. Edozein moduan, **gehienezko partehartzaile kopurua 50 argazkilariena** izango da.

06. Partehartzaileek euren argazki-kamera digitala eta ekipoa ekarri beharko dute. Antolakuntzak memoria txartela bana emango dio partehartzaile bakoitzari. Txartela horrez gain, Antolakuntzak ez du beste motatako argazkilaritza ekiporik utziko, hau da, kamarak, ordezeko bateriak, objetiboak edota bestelako argazkilaritza osagarriak.

07. Argazkien erregistroa egiteko, partehartzaileek izena emateko momentuan Antolakuntzak emandako zenbakitutako memoria txartela soilik erabili beharko dute. Txartel hau aurretiko izen-ematean eurek adierazitako formatu fisikokoa izango da eta edukiari dagokionez, garbi-garbi egongo da. Hala ere, Rallya hasi baino lehen txartela kameran bertan formateatzea gomendatzen da.

08. Argazkiak Barrikako lurraldetasun mugen barne gauzatu beharko dira, eta egoera hau ahalbidetzeko, Antolakuntzak udalerrriaren mapa bat eskainiko dio partehartzaile bakoitzari.

09. **Argazkiak etzanda, kolorean eta kamarak eskaintzen duen gehienezko erresoluzioan JPG formatuan** erregistratu beharko dira soilik.

10. Aurkeztuko diren argazkietan kanpoko ukiturik egotea ez da onartuko. Kamaran bertan gauzatu daitezkeen barne ukituei dagokienez, Epamahiaren aburuz ez dira onartuko imajinaren eduki naturala funtsean aldatzen duten horiek, esaterako: solarizatu efektuak, pixelatua, sepia...etab.

11. Antolakuntzak 45 minuturo gai bat iragarriko du, lehendabizikoa goizeko 10:00etan aurkeztuko delarik. **Lehenengo gaia eta ondorengoak frontoian kokatutako panel batean iragarriko dira.** Gaiak ez dira inolako sare sozial plataforman iragarriko, eta telefonoz ere ez dira aditzera emango. Beraz, partehartzaileek frontoira bueltatu beharko dira edo gaiari buruz informatzen dien pertsonaren bat eduki beharko dute.

12. Partehartzaileek gai bakoitzari buruz nahi duten argazki beste atera dezakete, baina aurkeztean, **gai bakoitzeko argazki bakarra aukeratu beharko dute.** Txartelean diren beste argazkiak ezabatu beharko dira. Gainera, **aurkeztuko diren amaierako 4 argazkiak, bana gai bakoitzeko, gaiak iragarri izan diren orden berberean aterata izan beharko dira.** Baldintza hauek betetzen ez dituzten argazkiak, deskalifikatuak izango dira.

13. Argazkiak ateratzean, partehartzaileek hirugarrenen eskubideak errespetatu beharko dituzte. **GARRANTZITSUA:** partehartzaile bakoitzaren erantzunkizuna izango da beharrezko baimena aurkeztea pertsonen, eraikinen barneko, etab. argazkiak ateratzen baldin baditu.

14. Partehartzaileek aukeratutako lau argazkiez osaturiko memoria txartela aurkeztu beharko dute, Barrikako frontoian Rallyaren eguneko 13:45ak baino lehen.

15. Epamahaia Bizkaiko argazkilaritza munduko pertsona nabarmenez osatua izango da eta epaitza sari banaketaren egunean aditzera emango da. Epamahiak eman gabe utzi ahal izango ditu sariak, hala iritziz gero.

16. Sariak. Hiru bildumarik onenak sarituak izango dira eta udalerriko artistaren bilduma onena saritua izango da ere. Partehartzaileek ezinezkoa izango dute sari bat baino gehiago irabazi.

Lehenengo saria: Garaikurra eta 300€tako erosketa balea.

Bigarren saria: Garaikurra eta 200€tako erosketa balea.

Hirugarre saria: Garaikurra eta 100€tako erosketa balea.

Udalerriko argazkilariaren bilduma onenari saria: Garaikurra eta 100€tako erosketa balea.

Garaikurra guztiak Barrikako Jubilatuen Elkarteak, JUBIBARRIKA, eskainiak dira.

Aipaturiko lau erosketa-baleak Barakaldo edota Bilboko **Foto SAMAR** establezimenduetan materiala erosteko dira adierazitako zenbatekoetan, Barrikako Udalak eta Foto SAMAR babestutako sariak dira hauek.

17. Sari banaketa publikoa izango da, Barrikako Jon Deunaren jaietako giroan, hurrengo domekan, ekainaren 21ean arratsaldeko ordutegian **(19:00ak inguru)**. Antolakuntzak partehartzaile guztiak abisatuko ditu.

18. Lau bilduma garaileak eta lau argazki onenak osaturiko taldea (gai bakoitzeko bana), inprimatu eta Barrikako Nagusien Etxean erakusketan izango dira Uztaila eta Abuztuko hilabeteetan zehar.

Argazkien inprimatzea Sopelako **Foto XABIER** eskainia da.

PARTEHARTZEKO BALDINTZAK

01. Rallyan parte hartzeak **Oinarri eta Baldintza** hauen edukia onartzen dela adierazi nahi du.

02. Partehartzaileek Rallyan zehar ateratako eta ebaluaketarako Antolakuntzara entregaturiko argazkien erabateko jabetza mantenduko dute.

03. Antolakuntzak eta Barrikako Udalak Rallyan entregaturiko edozein argazki publikatzeko edota esposaketa egiteko asmoz inprimatzeko eskubidea gordetzen dute denboraldi mugagabe baterako. Aldi berean, argazki hauek erabili ahal izango dira Barrikako Udalaren promozio helburuetarako (egutegiak, kultur jarduerak, etb.) edota etorkizuneko Rally eta Rallyaren zerikusia duten ekintzetarako, imajinen jabea kalte-ordaindu edota honen oniritzia eskatu behar gabe.

04. Antolakuntzak Rallyaren **Oinarri edota Baldintzak** hautsi dituen edozein partehartzaile deskalifikatzeko eskubidea gordetzen du.

05. Antolakuntza eta Epailen erabakiak behin betikoak eta apelaezinak dira.

06. Izen-ematea burutzean, partehartzaileek Rallyan zehar suertatzen den edo honekin erlazonaturik dagoen edozein lesio, galera edota kaltez salbuesten dute bai Antolakuntza bai Barrikako Udala.

07. Edozein arrazoia dela eta, Rallya aurrera eramatea ezinezkoa baldin bada, Antolakuntzaren kontrolaz kanpo diren arrazoiak barne, honek, bere zuhurtzia bakarrera, Rallya aldatu edota bertan behara uzteko eskubidea gordetzen du. Egoera honetan aurretik izena emandako pertsona guztiei abisatzen saiatuko da.

08. Aurkezturiko argazkiak jaso ahal izango dira UDAL KULTUR GUNERA hurbilduz uztailaren 6tik aurrera eta bulego ordutegian. Eskatzaileak pen-drive USB bat ekarri beharko du bertan aurkezturiko argazki guztiak gordetzeko.

09. Antolakuntzak **Oinarri eta Baldintza** hauek Rallya hasi baino lehen edozein momentutan eta aurreko abisurik gabe aldatzeko eskubidea gordetzen du. Partehartzaileei era egokian komunikatuko zaizkie aldaketa guztiak.

=====

(sinatuta entregatzeko memoria txartelarekin batera behin Rally amaitzean)

Izen abizenak _____ Partehartzaile zenbakia. _____

BARRIKA I RALLY 2015-ean PARTE HARTZEA ONARTZEN DUT BERE OINARRI ETA BALDINTZEN ARABERA

Barrikan, 2015eko Ekainaren 14ean sinatuta

AURRETIKO IZENA EMATEKO ORRIA

ARGAZKILARITZA DIGITALA RALLYA 4X4X3 BARRIKA 2015eko Ekainak 14

Izen abizenak: _____

NAN: _____ Tel. _____

Email: _____

Erroldatua nagoen udalerrria: _____

Jaiotze-data: _____

2015eko Ekainaren 14ean, domeka, Barrikan gauzatuko den Argazkilaritza Rallyan parte hartu nahi dut. **Honako hau aurretiko izen-ematea da, Rallyaren egunean bertan, Barrikako frontoian goizeko 9:00etatik 9:45etara nire behin betiko izen-ematea formalizatu behar dudala.**

Nire kamarak erabiltzen duen memoria txartelaren formatua honakoa da:

Compact Flash SD

Beste bat (zehaztu behar) _____

OHAR GARRANTZITSUA: Formulario hau behar-bezala beteta Barrikako UDAL KULTUR GUNEAN zuzenean aurkeztu edota emailez bidali ahal izango da, **Ekainaren 11a, osteguna, baino lehen.** Behin aurreinskripzio formularioa bidali edota aurkeztuta, hartze orden berberean partehartzaile zenbakiak emango zaizkie lehenengo 50 eskaerei, onarpena eta aurreinskripzio zenbakia lehenengo 50 aurreinskribatuei soilik emanek. Bere aurreinskripzio zenbakiaz informatuz komunikaziorik jasotzen ez duenak, bere eskaera berandu iritsi dela ulertu beharko du, 50 aurreinskribatuen ostean eta hori dela eta, ezin izango du parte hartu.

Argibide gehiago:

BARRIKAKO UDAL KULTUR GUNEA

TEL. 94 677 5163

email: liburutegia@barrika.net